



**Txillardeg
HAUSNARTU**
SOZIOLINGUISTIKA
SARIAK

Ebaluazioa: euskararen aldeko ekimenen labirintoan orientatzeko gakoa

Miguel Galicia Lambarri

2019ko lehen saria. [Lanaren laburpena]

Proiektuaren izenburuan bi baieztapen egin ditut: euskararen aldeko ekimenen mundua labirintikoa dela, batetik; eta bertan orientatzeko gakoa ebaluazioan dagoela, bestetik.

Bigarrenaren inguruan azalpen gutxi behar da, ebaluazioa baita tresna nagusia (bakarra?) jakiteko non gauden, nora joan behar dugun, nondik, zer egin behar dugun, edo helburua lortu dugun ala ez. Alegia, ebaluazio, kritika eta autokritikarik egin ezean, labirinto gabe, zulo beltza(goa) izango litzateke gurea. Beraz, ebaluazioa gakoa dela esatea Pernandoren egia esatea da berez, nik uste.

Baina zergatik da labirintikoa euskararen aldeko ekintzen mundua?

Egia esan, ez da oso originala metafora hori erabiltzea: ia-ia bizitzako arlo guztietan aplikatu daiteke; izan ere, kontraesana dugu gure ezaugarri nagusia. Edozein dela ere jorratu beharreko gaia, iritzi eta ideia kontrajarriak sortzen dira han eta hemen lehen unetik beretik. Harako hark esaten zuen bezala, "oximoronak bizi gaitu". Hori da gure patua, baita espezie bezala ere: izaera "eskizoidea" markatua dugu bekokian, halabeharrez. Eta, jakina, euskararen normalizazioaren esparrua ez da salbuespena.

Lehen batean behintzat, edonork esan lezake euskararen normalizazioa, Jainkoa bezala, bat eta bera nahikotxo dela; "Eden linguistikoa" antzera imajinatzen dugula. Baina ez da hala. Askotariko iritzi, pentsamolde eta helburuak daude: batzuk, utopikoagoak; bestetsuk,

pragmatikoagoak; eta pentsa daitekeenaz bestera, askotan elkarren kontrakoak ere badira, izan.

Horrela, bada, balizko normalizazioa irudikatzerakoan, hainbatek argi dute: independentziarekin kostata salbatuko da euskara; hori gabe, ezta pentsatu ere!

Beste batzuek elebitasun simetrikoa —aditu askorentzat "estralurtarra"— defendatzen dute. Eta badira eleaniztasuna kudeatu beharko dela diotenak, edo diglosiazko elebitasun egonkorraren alde egiten dutenak ere. Diglosiarik gabeko bilinguismoa eta euskal elebakartasunaren aldekoak ere ez dira falta, gero.

Horregatik, ilusio hutsala da pentsatzea denontzako "Jainko bakarra" nahikoa dela. Hemen ere, gauza guztietan bezala, zenbat buru, hainbat "helburu". Eta hortik labirintoarena.

Baina helburuak eta beroriek lortzeko bide ezberdinak (eta are kontrajarriak ere) ez dira labirintoa osatzen duten elementu bakarra. Gehiagorik ere bada: terminologia, diagnostikoa, baliabideak, epeak, neurriak, adierazleak, irizpideak... dena ikusi eta baloratzen da ezberdin, zein den ikuspegia; subjektibotasuna da nagusi, eta fenomeno berberaren aurrean jarrera baikorrenetik ezkorrenera pasatzea ez da arraroa.

Horregatik, proiektu honetan, gauzak errazte aldera (?), erabaki nuen arreta ebaluazioan bakarrik (!) jartzea; zeren, esan ohi den moduan, "asko egin nahi, gutxi egin bai".

Baina labirinto batetik ihes egin bezain laster, beste batean sartu nintzen; izan ere, nire asmoa izan da plan estrategiko nagusi (ESEP) eta zenbait udalerrri eta eskualdetako plan eta mikro-proiektuen ebaluazioa ebaluatzea; hau da, "izurra izurtzea" nolabait, ebaluazioa ebaluatzeak berez ekar baitezake azkena ebaluagai bihurtzea eta ad infinitum eramatea amaierarik gabeko prozesua. Hori bai ispilu-labirintoa! Eta hori gutxi balitz bezala, ebaluazioaren kritika egiteaz batera, autokritika egin beharrean egon naiz, ni neu izan naizelako sarritan protagonista eta "konplizea", gutxienez, aipatutako plan eta proiektu horietako hainbatetan.

Baina, esan bezala, horixe da gure patua: labirintoan barrena murgiltzea nahi eta nahi ez.

Horiek horrela, nire egitekoa izan da ebaluazioa hiru maila hauetan aztertzea: alegia, plan markoan (ESEP), zenbait eskualde eta udalerritako plan estrategikoetan eta mikro-proiektuetan. Eta labirinto guztietan bezala, hemen ere elementu engainagarriak topatu ditut. Baina, laburtze aldera, hona ekarriko dut garrantzitsuena: adierazi eta iradokitzen denaren kontra, ez dagoela kausa-ondorio erlazio zuzen eta bakarra propio gauzatzen den interbentzioaren eta gerora inkestean eta neurketen bidez ondorioztatzen diren emaitzen artean. Hau da, A baldin bada aisialdiaren erabilera-egoera, eta B interbentzioaren osteko emaitza globalak, ezin diogu egotzi gure interbentziari aurrerapauso edo atzerapausoen meritu edo porrotaren errua, zeren eta tartean hainbat eta hainbat faktore exogeno ari dira eragiten eta baldintzatzen erabilera bera esparru guztietan: faktore politiko, kultural, ekonomiko, urbanistiko...

Hortaz, ezin dugu esan gure planen neurri eta ekintzek emaitza globalak esplikatzen dituztenik (edo faktore bakarra direnik). Horrenbestez, ekimenak ebaluatzeko bestelako formulak behar dira. Eta badaude.

Funtsean, bi dira interbentzioak ebaluatzeko metodoak: ebaluazio kuantitatiboa (zenbat partaide ibili diren dena delako ekitaldian) eta ebaluazio kualitatiboa (partaideen gogobetetze-maila).

ESEPen bertan, bestela bezala bada ere, aipatzen dira irizpide horiek, eta gainerako (edo beheragoko) planetan mimetikoki erreproduzitzen dira ebaluazio-irizpide berak. Baina horiek bere horretan aplikatzeak baditu ondorioak:

1. Jarduera guztiak, balio normalizatzaile bera izango balute bezala, ebaluatzen direla (garrantzi-maila bera aitortzen zaie).
2. Ezin bereiz daitekeela zein den jarduera hutsal edo funtsezko; zein behin behineko, edo zeini, ordea, eutsi behar zaion behin betiko.
3. Iritzi "inpresionistak" nagusi direla.
4. Kalitate-parametroak neurtu gabe geratzen direla.
5. Jardueren arteko hierarkiarik ezin dela ezarri (totum revolutum indiferentziatu batean biltzen dira jarduerok).
6. Hurrenkera zentzuzkorik ezin dela gauzatu.

Beste era batera esateko: irizpide kualitatibo eta kuantitatibo huts horiek ez dira gai ekintzen eraginkortasun-maila zehazteko. Adibidez, Euskal Ezkontza antolatzen badugu, segur aski jende-andana elkartuko da, eta gustura baino gusturago egongo da. Baina zein da haren eraginkortasun-maila normalizazioaren baitan? Ludikoa bada; propagandistikoa ere izan liteke; baina balio normalizatzailearen aldetik begiratuta, erabat anekdotikoa da. Kito.

Alternatiba, zein ote? Nola neurtu ekintzen eraginkortasuna?

Adituek horren gainean hainbat iritzi plazaratu dituzte dagoeneko; eta nire lana izan da, ahal izan dudan neurrian, irizpideok bildu eta beroriekin ekintzen eraginkortasun edo kalitatea ebaluatzeko taula bateratua atontzea.

Bertan balio normalizatzailearen irizpideak finkatzeko zirriborroa eratu dut, eta horrela, behin irizpide eta adierazleak zehaztuta, bakar-bakarrik falta da egoera soziolinguistikoko bakoitzaren araberrako irizpideen arteko ponderazioa adostea eta jarduera guztiak pasaraztea taula edo fitxa teknikoaren galbahetik. Horrelaxe neurtu ahalko dugu ekintza bakoitzaren eraginkortasun-maila; eta horrelaxe markatu ahalko dira hurrenkera eta aurrerapauso/atzerapausoen nondik norakoak.

Defendatu dudan tesia, beraz, hauxe da: emaitza soziolinguistiko globalek (eta are gutxiago ohiko irizpide kualitatibo-kuantitatibo "inpresionistek") ez digute argitzen interbentzioaren kalitatearen nolakotasuna. Bestelako irizpideak behar ditugu, hala nola ekintzen jarraitutasuna, transferigarritasuna, ezaugarri formal/informalak, jarduerak berariazko edo bide batezkoak ote diren, goitik beherako ala behetik gorakoak diren, protagonismoaren zernolakoa, eta abar.

Eta behin zehaztuta jardueren ezaugarriak (eta norabidea argi izanda), labirintoan orientatzeko modua izango dugu.

Noraino helduko garen, beste upeleko sagardoa da. Baina gutxienez jakingo dugu zein ondo/txarto gabiltzan normalizazioaren bidean. Ez da gutxi.

Amaitzeko, ibilbide honen hurrengo urratsa planteatu dut: jarduera bilduma bat bere baitan bilduko lukeena, ez bakarrik zer eta nola egin honako ekintza hau edo harako hura, baizik eta, horiez gain, azaldu eta zehaztuko lukeena zein diren jardueren ezaugarri eraginkor eta behinenak, eta zein aplikatu beharko litzatekeen egoera bakoitzaren arabera.

Utopia hutsa, agian; baina hori gabe labirintoan jira-biraka ibiltzea, beste alternatibarik ez dugu.